

ARIKETAK

- 1** Zuzena(k) edo egokiena(k) aukeratu
- a) Ahuakatea duen edozein entsalada eskatzearen aldekoa naiz.
b) Aguakatea duen edozein entsalada eskatzearen aldekoa naiz.
 - a) Inguru horretan ez da egoten **berebila** non utzi.
b) Inguru horretan ez da egoten **beribila** non utzi.
 - a) Satsa **gurdian** hartu, zelaira eraman eta zabaldu egin zuten.
b) Satsa **burdian** hartu, zelaira eraman eta zabaldu egin zuten.
 - a) Abiadura **erradarrez** kontrolatzeko ekipamendua eskuratu eta instalatzea helburu duen administrazio-kontratua esleitu da.
b) Abiadura **radarrez** kontrolatzeko ekipamendua eskuratu eta instalatzea helburu duen administrazio-kontratua esleitu da.
 - a) Hurrengo astean gonbidatuko dituzte platora ondo konpontzen ez diren guraso eta seme-alabak eta elkarri hitz egiten ez dioten **anai-arrebak**.
b) Hurrengo astean gonbidatuko dituzte platora ondo konpontzen ez diren guraso eta seme-alabak eta elkarri hitz egiten ez dioten **anaia-arrebak**.
 - a) Idazle **belgiarraren** azken eleberririk garai hartako giroa **islatzen** du.
b) Idazle **belgikarraren** azken eleberririk garai hartako giroa **isladatzen** du.
c) Idazle **belgiarraren** azken eleberririk garai hartako giroa **isladatzen** du.
d) Idazle **belgikarraren** azken eleberririk garai hartako giroa **islatzen** du.
 - a) Energia ezin da sortu, ezta **deuseztu** ere, eraldatu besterik ez da egiten.
b) Energia ezin da sortu, ezta **deuseztatu** ere, eraldatu besterik ez da egiten.
 - a) Elizatik ateratzean estropezu egin eta **ahuspez** erori zen.
b) Elizatik ateratzean estropezu egin eta **ahozpez** erori zen.
 - a) Mikroskopia horrek argi polarizatua erabiltzen du eta lagina kokatzen den aldea **birakaria** da.
b) Mikroskopia horrek argi polarizatua erabiltzen du eta lagina kokatzen den aldea **biratzailea** da.
 - a) Kultur etxeetako areto **balioanitzak** erabili ohi dira horrelako ekitaldiak antolatzeko.
b) Kultur etxeetako areto **balioaniztunak** erabili ohi dira horrelako ekitaldiak antolatzeko.
 - a) Borondatezko **jubilazioa** 60 urterekin hartzea aukeratzen dutenek hitzarmeneko alokairuko 12 hileko saria izango dute.
b) Borondatezko **erretiroa** 60 urterekin hartzea aukeratzen dutenek hitzarmeneko alokairuko 12 hileko saria izango dute.
 - a) Cyrano de Bergerac antzerkiaren egilea **pneumoniak** jota etorri zen Kanbora, medikuak gomendaturik.
b) Cyrano de Bergerac antzerkiaren egilea **neumoniak** jota etorri zen Kanbora, medikuak gomendaturik.
c) Cyrano de Bergerac antzerkiaren egilea **alborengoak** jota etorri zen Kanbora, medikuak gomendaturik.

A R I K E T A K

13. a) Handik gutxira, nire aurreko aulki batean belaunikatu eta **aurpegia** estali du esku zimurren artean.
b) Handik gutxira, nire aurreko aulki batean belaunikatu eta **arpegia** estali du esku zimurren artean.
14. a) Epe laburrean **erantzukizun** handiko karguetan emakumeen presentzia areagotzea dute helburu.
b) Epe laburrean **erantzunkizun** handiko karguetan emakumeen presentzia areagotzea dute helburu.
15. a) Desagertzeko zorian zeuden izenak **birbiztu** egin dituzte.
b) Desagertzeko zorian zeuden izenak **berpiztu** egin dituzte.
c) Desagertzeko zorian zeuden izenak **berbiztu** egin dituzte.
16. a) Denboraldi honetan ere Musika Hamabostaldirako katalogoa dohainik, **abonamendua** eskuratzen duten lagunentzat.
b) Denboraldi honetan ere Musika Hamabostaldirako katalogoa dohainik, **abonua** eskuratzen duten lagunentzat.
17. a) Nazien aurka aritzen ziren **hegazkinlari** britainiarrak erreskatatzeko ardura zuen sare horrek.
b) Nazien aurka aritzen ziren **abiadore** britainiarrak erreskatatzeko ardura zuen sare horrek.
c) Nazien aurka aritzen ziren **pilotu** britainiarrak erreskatatzeko ardura zuen sare horrek.
18. a) **Diskoaren** azalean hiriko **eraikin** famatuenaren irudia ageri da.
b) **Diskaren** azalean hiriko **eraikin** famatuenaren irudia ageri da.
c) **Diskaren** azalean hiriko **edifizio** famatuenaren irudia ageri da.
d) **Diskoaren** azalean hiriko **edifizio** famatuenaren irudia ageri da.



Berridatzi esaldiak, gramatika ataleko artikuluan esandakoak kontuan hartuta:

1. Mendiz mendi genbiltzala, behe lainoa bat-batean agertu eta galtzeko zorian izan ginen.

_____ aginean
_____.

2. Pozaren pozez joango naiz zuenera afaltzera.

_____ ...arren _____.

3. Azterketa guztiak hil honetan egin dira eta urte bi barru izango dugu behin betiko emaitzen berri.

_____ garrean _____
_____.

4. Aizu, badakizu non dagoen liburutegia? Bai, jakingo ez dut, bada! Eraikin horren ondo-ondoan dago, hari atxikita.

_____ deutsola dago.

A R I K E T A K

5. Barkatu, noiz iritsiko da autobusa? Ez nago ziur, baina dagoeneko hogeiren bat minutu egin dut haren zain.

_____ **begira**.

6. Nagiarren, inork ez zuen harekin lan egin nahi.

_____ **ez gero**, _____.

7. Bidaia hori egiteko argibideak lortu behar genituzke, baina ez dakit nondik hasi. Ziur aski, azkenean, agentziaren ardurapean utziko dut den-dena.

_____ **pentzudan**

_____.

8. Gure adi izan zen luzaroan, baina ezin izan ginen garaiz heldu.

_____ **zain** _____.

9. Leku guztietan txakurrak ortozik.

_____ **-lekuan** _____.

10. Lesaka hagitz ederra dela aipatzen dute herrira bertaratuko guztiak.

_____ **-ederra** _____.

3 Sinonimoak eman:

1. **Txinboan** zebilen mutikoak behea jo eta min hartu zuen.

2. **Itaun** horri erantzuna emateko, denbora gehiegi behar izan duzu.

3. **Oraindino** ez dakigu zer jazoko den kontu horrekin.

4. Lehengusua **hur-hurrean** bizi dela jakin dudanetik, bisitalditxo bat noiz egiteko zain gaude sende guztiak.

5. **Jagole** bakoitzak hiru elbarriren ardura izango du irtenaldi honetan.

6. Zenbaiten ustetan, film horrek **nahitaez** izango du geroagoko bertsioa.

7. Erori baino lehen, ez dakit nola **heldu** nion azken momentuan eskutik.

8. **Beren beregi** aipaturiko argibideak dira, auziaren erantzuleak horien berri izan dezan.

9. Ume **lohi** hori! Mesedez, garbitu aurpegia eta eskuak ahalik eta arinen.

10. Sute hori baten batek **isiotu** zuen gurata, baina ez dago jakiterik nor izan den.

SOLUZIOAK

1 Zuzena(k) edo egokiena(k) aukeratu:

1. a 10. b
2. b 11. b
3. a 12. a; c
4. b 13. a
5. a 14. a
6. d 15. b
7. b 16. a
8. a 17. a; c
9. a 18. a

2 Berridatzi esaldiak, gramatika ataleko artikuluan esandakoak kontuan hartuta:

1. Mendiz mendi genbiltzala, behe lainoa bat-batean agertu eta **galdu aginean** izan ginen.
2. **Pozarren** joango naiz zuenera afaltzera
3. Azterketa guztiak hil honetan egin dira eta urte bi **garreanean** izango dugu behin betiko emaitzen berri.
4. Aizu, badakizu non dagoen liburutegia? Bai, jakingo ez dut, bada! Eraikin **horri deutsola** dago.
5. Barkatu, noiz iritsiko da autobusa? Ez nago ziur, baina dagoeneko hogeiren bat minutu egin dut **haren begira**.
6. **Nagia zenez gero**, inork ez zuen harekin lan egin nahi.
7. Bidaia hori egiteko argibideak lortu behar genituzke, baina ez dakit nondik hasi. Ziur aski, azkenean, **agentziaren pentzudan** utziko dut den-dena
8. **Gure zain** izan zen luzaroan, baina ezin izan ginen garaiz heldu.
9. **Lekuan-lekuan** txakurrak ortozik.
10. Lesaka **eder-ederra** dela aipatzen dute herrira bertaratuko guztiak.

3 Sinonimoak eman:

1. Zabua, kulunka...
2. Galdera, galdekizun, galde...
3. Oraindik...
4. Gertu, hurbil, aldean, ondoan...
5. Begirale, zaintzaile, zaindari...
6. Derrigorrean, nahitaez, halaberharrez, ezinbestean, baitezpada...
7. Oratu...
8. Berariaz, nahita...
9. Zikin, likits...
10. Piztu, irazeki...